

Arrue proiektua: zer eman dion eskolak gizarteari

ARRUE PROIEKTUAK eman ditu argitara emaitzak. LH4ko (9-10 urte) eta DBH2ko (13-14 urte) EAEko ikasle guztien datuak aztertu zituzten 2011n, ikasleen hizkuntza erabilera jakiteko. ISEI-IVEIk, Eusko Jaurlaritzak eta Soziolinguistika Klusterrak hartu dute parte. Pablo Suberbiola Arrue ikerketan parte hartu duenetako bat da, eta haren esanetan, hezkuntzan urtetan dabilen profesionalarentzat datuak egiaztapena baino ez dira izan.

Emaitzak labur-labur ondokoak dira: LH4ko ikasleen artean, gela barruan, %60 aritzen dira euskaraz beti edo gehienetan. DBH2ko ikasleak berriz, %60 beti edo gehienetan gaztelaniaz. Jolaslekuan gaztelania nabarmen gailentzen da bi mailetan: LH4ko ikasleen %59 beti edo gehienetan ari zen gaztelaniaz eta DBH2n %75.

Ikasleak irakasleekin mintzatzen direnean datuak bestelakoak dira. Gela barruan, 9-10 urtekoen %74k euskaraz egiten diete irakasleei beti edo gehienetan. 13-14 urtekoen %61ek. Gelatik kanpo datuek behera

egiten dute: 9-10 urtekoen %64 dira euskaraz ari direnak eta %52 DBH2koen artean. Pablo Suberbiola elkarrizketatu du *Berria* egunkariak eta ikerketaren balorazio interesgarriak jarri ditu mahai gainean. Ikasgeletatik jolastokietara euskararen erabilera nabarmen behera egiteak harritu egiten du bat baino gehiago, eta kezka sortu. Suberbiolak nahiago du beste begi batzuekin ikusi ikasgele-jolastokia binomioan gertatzen dena: “Ez da paranormala jolastokikoa. Zuzenagoa da datuei hola begiratzea: ez zenbat jaisten den gelatik jolastokira, baizik eta zein den batez bestekoa gizartearen eta zer plus sortzen duen eskolaren eraginak. Nola sortzen da plus hori? Hori da galdera. Nola euskara lehen hizkuntza ez duen ikasleak egunero euskaraz egiten duen ikaskideekin eta irakasleekin. Hori lorpen handia da”. Gizarteko argazki linguistikoa ezagututa, jolastokikoa normalizat du Suberbiolak: “Jolastokian ere beharko luke [euskararen erabilera handiagoa]? Bai, baina ez da gauza automatikoa. Nola

ikusten dituzte beren futbol ereduak? Erdaraz egiten dute jolaslekuan. Logikoa litzateke bestela egitea? Soziolinguistikoki beste zerbait espero dugu?”.

Arrue proiektuak 9-10 eta 13-14 urteko ikasleen hizkuntza erabilera aztertzeaz gain, erabilera areagotzeko balio dezaketen ondorio orokorrak eskaini ditu, alegia, nolako interbenzio aukerak dauden eskoletan hizkuntza ereduaren eraginetik at. Emaitzek diotenez, eskolaz kanpoko jarduera antolatuen eremuak hizkuntza erabilera eragiten du, eta beraz, eremu horretan euskaraz toki gehiago izatea bultzatu beharko litzateke.

Komunikabideak eta kultur kontsumoa dira beste esparru inportanteak, batez ere A eta B ereduakentzat.

Ikerketak azpimarratu duen hirugarren eremua irakasleen arteko eta ikastetxeko bestelako langileekiko hizkuntza erabilera da.

B ereduko ikasleei begira, euskaraz aritzeko gaitasuna bera hobetu beharko litzateke eta D ereduko kasuan hizkuntzarekiko motibazioa landu.

TERMOMETROA • EKONOMIAREN TALAIAN

Boterearen kontrako sindikatua: abertzalea eta antikapitalista

IBERDROLAKO PRESIDENTE Sánchez Galánek berriki esan du sindikatuak inoiz baino beharrezkoagoak direla. Davos hirian munduko elite kapitalistarekin bildu den Galánek sindikatuek duen ikuspegiak, ez du zerikusirik sindikalgintza abertzaleak sustatzen duen eredu sindikalarekin, ELAren 13. Kongresuan ikusi den bezala. Davoseko eliteek bezala, Galánek nahi du sindikatuak kapitalaren “koltxo” izatea, burokrazian eroriak, lausengatuak, diruz lagunduak... Sistema kapitalista zalantzan jarriko ez duten sindikatuak nahi ditu. Aldiz, etorkizunean langabezia, pobrezia eta murrizketa sozial gehiago izango direla jakitun, ELAren Kongresuan boterearen kontra egingo duen sindikalgintza abertzale eta antikapitalista aldarrikatu zuten, politika kapitalistari eta hura sostengatzen duten politikariei aurre egingo diena.

105.312 afiliaturen indarra duen ELAK sindikatuen batasuna ekarriko lukeen prozesuaren alde egin du,

justizia soziala defendatzea helburu, eta erakundeei eskatu die “Espainiako Gobernuaren dekretuei planto egitea, eskubideen murrizketa eta babesgabetasun soziala handitzea besterik ez dakartelako”. Sindikatuen iritziz, “desobeditzea burujabetzaren aldeko apustua da, eta gizartearen gehiengoaren aspirazio eta beharrek bat egiten du”. Apustu gogorra eta zaila da, baina ez ELAren soilik, baita gainerako sindikatu abertzaleena ere; sindikatuen arteko ekintza batasunaren oinarri izan liteke etorkizunean. Horren berme dira azken hiru urtean egindako bost greba orokorrak.

ELAko buruzagi umil eta zuhurra den Valentin Bengoa jesuitak, jadanik erretiratu, zerikusi handia du sindikatuen abertzaletasun eta antikapitalismo horrekin. Mereziko luke herritarren omenaldi eta onarpena!

Juan Mari Arregi

